

PROGRAMA: AUTOENPLEGUA SUSTATZEA

Aholkularitza eta trebakuntza ikastaroak

Xedea	Enpresa-proiektuak sortu eta abian jartzeko aholkularitza.
Erakunde onuradunak	Udal-izaerako enplegu eta tokiko garapenerako zentroak.
	Irabazteko asmorik gabeko fundazioak, elkarteak eta bestelako erakundeak.
	Enpresa-kudeaketan gutxienez hiru urteko esperientzia dutela egiaztatu beharko dute.
Diru-laguntzaren xede izan daitezkeen egitateak	Lehenengo fasea: enpresaren eta enpresa-kudeaketaren hastapena, 30 orduko taldeko prestakuntza; gutxienez, 8 pertsona sustatzaile eta, gehienez, 20.
	Bigarren fasea: banakako aholkularitza, pertsona sustatzaile bakoitzeko 40 ordu, gehienez, negozio-plan zehatza egiteko.
Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak	Kanpoko trebakuntza-gastuak. Diruz lagundutako ekintzetan parte hartu duten erakunde onuradunaren langileen barne-gastuak, trebakuntzari edo aholkularitzari buruzkoak. Diruz lagundutako ekintzan zuzenean parte hartu duen pertsonalaren soldatak eta gizarte-kargak baino ez dira sartuko.
Diru-laguntzaren zenbatekoa	Erakunde bakoitzari gehienez emango zaiona: 80.000,00 euro.
	Laguntzaren gehienezko zenbatekoa kalkulatzeko, 1.500 euro biderkatu behar zaizkio 2015eko urriaren 1etik 2016ko irailaren 15a bitartean aholkatu eta abian jarri diren proiektuen kopuru osoari % 10 gehitzearen emaitza den zifrari.
Arautegia	Bizkaiko Foru Aldundiaren 15/2017 FORU DEKRETUA, 2017ko otsailaren 28koa, zeinaren bidez ezartzen baitira langabezian eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen artean autoenplegua eta enpresak sortzea sustatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak. (I. titulua 1. atala). Emateko prozedura norgehiagoka araubidea izango da, hainbanaketa eginda.
	Deialdia: 2304/2017 FORU AGINDUA, martxoaren 9koa. Honen bidez enpresa proiektuak sortzeko eta abian jartzeko aholkularitzaren arloko jarduerak jasotzen diren laguntzen deialdia arautzen da (BAO. 53 zk. 2017, martxoak 16, Osteguna).
Epeak	Ekintzak egiteko epeak 2016ko irailaren 16tik 2017ko irailaren 15era.
	Eskaerak aurkezteko epea eta modua Eskabideak aurkezteko epea 2017ko martxoaren 17an hasiko da, 8:00etan, eta 2017ko martxoaren 31an bukatuko da, 13:30ean.. Eskabideak eta gainerako dokumentazioa Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztu behar dira (www.bizkaia.eus/enplegua-bulegobirtuala). Horretarako, enpresak sinadura elektronikoa eduki behar du edo, bestela, BizkaiBai zerbitzuan izena emanda egon behar du.